Azpeitiko Udala

AZPEITIKO SEXU ETA BIKOTE AHOLKULARITZA ZERBITZUA ESLEITZEKO BALDINTZEN PLEGU TEKNIKOAK

1. XEDEA:

Oinarri hauen xedea, Azpeitiko Udalak, bere berdintasun politikaren barruan sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua esleitzeko baldintza teknikoak arautzea da.

2. ZERBITZUAREN HELBURUAK:

Sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua Azpeitiko Udaleko Parekidetasun Sailaren barruan kokatzen den zerbitzu bat da, eta bere helburu nagusia herritarrek beraien sexua, sexualitatea eta desirak modu osasuntsuan bizitzeko eta tratu onetan oinarritutako harremanak eraikitzeko tresnak eskaintzea da.

Hauek dira helburu zehatzak:

- Sexualitatearen inguruko informazioa eskaintzea.
- Sexologia zerbitzu desberdinen inguruko informazio gunea izatea.
- Sexualitatearen inguruko tabuak deseraikitzeko baliabideak eskaintzea.
- Tratu onetan oinarritutako harreman ereduak sustatzea.

3. FORMATZAILEAREN FUNTZIOAK:

- Sexu aholkularitza indibiduala eta/edo bikoteei bideratutako zuzeneko arreta eskaintzea eta kudeatzea.
- Zuzeneko arretarako hitzorduak jaso eta kudeatzea.
- Kolektibo edo eragile konkretuak identifikatzea eta hauentzat formakuntzak prestatzea, eskaintzea eta baloratzea.
- Azpeitiko Udaleko Parekidetasun Saileko teknikariarekin koordinatzea.
- Azpeitiko eragile desberdinekin koordinatzea: eskolak, anbulategia, Emakumeen Txokoa, Gaztelekua, etab.
- Hezkidetza proiektuko arduradunarekin koordinatzea.
- Udaleko komunikazio arduradunarekin komunikazio estrategiak adostu eta koordinatzea.
- Parekidetasun Sailari balorazio txostena aurkeztea.

4. ZERBITZUAREN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIOA:

Esleipendunak Sindikatu Zaharreko 2. solairuan dagoen eta Udalaren jabetzakoa den bulegoan eskainiko du zerbitzua.

Zerbitzu hau emateak, besteak beste, ondorengo konpromiso eta betebeharrak eskatzen ditu:

4.1. Azpeitiko Udalaren betebeharrak

- Bulegoa uztea, bertako altzari eta oinarrizko ekipamenduarekin.
- Fakturak ezarritako epeen barruan ordaintzea.
- Lokalaren garbiketa eta mantenu lanez arduratzea.
- Zerbitzuaren zuzendaritza eta kontrolaz arduratzea, Parekidetasun Sailaren bitartez.

4.2. Esleipendunaren betebeharrak

Zerbitzuari dagokionez:

-Zuzeneko arreta eskaintzea: hilero 8 orduko bikote eta sexu aholkularitza eskaintzea. Zuzeneko kontsultei erantzungo zaie, aurrez aurre, telefonoz, postaz, etab.

- Talde eta eragileekin formakuntzak: ikasturte osoan bi eragile desberdinei formakuntza eskainiko zaie, lauhileko bakoitzean bati.

- Koordinazio eta kudeaketa: arreta eta zerbitzua behar bezala eskaintzeko beharrezko koordinazio eta kudeaketa gauzatuko da herriko eragile eta zerbitzu desberdinetako arduradunekin.

Ebaluazioari dagokionez:

Urtero, Parekidetasun Sailari, balorazio txostena aurkeztuko zaio parte hartzaileen kopuruekin, saioen nondik norakoekin, gauzatutako sentsibilizazio kanpainekin, izandako arazo eta zailtasunen eta abarren berri emanez.

Parekidetasun Sailarekin izan beharreko koordinazio eta kudeaketari dagokionez:

- Formakuntzak bideratu eta antolatu aurretik, Parekidetasun Sailaren oniritzia beharko dute.
- Erabiltzaileen beharrak ezagutu eta asetzeko estrategiak martxan jarriko dira.
- Erabiltzaileen eskaerak onartu aurretik, Parekidetasun Sailak ezarritako irizpideak kontutan hartuko dira.
- Udal teknikariari erabiltzailearen eskaera eta iradokizunak adieraziko zaizkio.
- Azpeitiko eragileekin elkarlana sustatuko da, zerbitzua ezagutaraziz eta baliabideak eskainiz.

5- ZERBITZUEN KUDEAKETA:

Azaldutako eginkizunak betetzeko, urte osorako 185 orduko dedikazioa izango du Zerbitzuko langileak, horrela banatuta:

- 80 ordu zuzeneko arretarako.

- 30 ordu talde eta eragileeei zuzendutako formakuntzetarako. Formakuntza bakoitza 15 ordukoa izango da.

-75 ordu koordinazio eta kudeaketarako.

Eginkizun nagusi horiez gain, zerbitzurako beharrezkoak diren bestelako eginkizunak ere burutu egingo dira aipatutako dedikazioaren barruan (planifikazioa, difusioa, jarraipena eta ebaluazioa, besteak beste).

6- EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK:

Sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua 10 hilabetez emango da, uztaila eta abuztuan ezik, beste hilabete guztietan.

Zuzeneko arreta, bi astean behin eskainiko dira, asteartetan, arratsaldez, 16:00etatik 20:00etara.

Ordutegi hori edozein unetan aldatu ahalko da Udaleko organu eskumendunaren eta Parekidetasun Sailaren proposamenez. Eguna eta ordutegia aldatzeko nahikoa izango dira 15 egun, adjudikazio hartzaileari jakinarazteko.

7- BALIABIDE MATERIALAK:

Udalak, Sindikatu Zaharreko 2. solairuko bulegoa eta oinarrizko ekipamendua jarriko ditu (altzariak, ekipamendu informatikoa eta oinarrizko materiala). Argindarra, ura, telefonoa eta interneteko konexio gastuak ere Udalaren kontura izango dira. Oinarrizko garbiketaz ere Udala arduratuko da.

8- GIZA BALIABIDEAK:

Zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren giza baliabideak jarri beharko ditu kontratuaren hartzaileak.

Langileak honako profil hau egiaztatu beharko du:

- Erdi mailako unibertsitate titulua izatea. Horrez gain, sexologian prestakuntza espezifikoa izatea.

- Sexologia zerbitzuetan eskarmentua izatea.

- EGA titulua edo baliokidea.

9- DATU PERTSONALAK:

Esleipendunak Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrak xedatutako bete beharko du. Ondorioz, sekretu profesional pean gordeko ditu kontratu honen arabera eskuratu ahal izango dituen

datu pertsonalak, eta agindu hori errespetatu egin beharko du baita Udalarekin izango dituen harremanak amaitzean ere.

Halaber, eskuratutako datuak bakarrik zerbitzu konkretu hau emateko erabili ahal izango ditu, eta ezin izango ditu beste helburu baterako aplikatu edo erabili.

Azpeitian 2021eko uztailaren 16an.